



UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK
UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROA ILUSTRAZIO ZIENTIFIKOAN:
ILUSTRAZIO ARKEOLOGIAN (1. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2024/2025

ARLOA: Zientzia Esperimentalak

KREDITUAK: 3,00 ECTS (*) kreditu

MATRIKULA TASA: 249,00 € (Asegurua 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Maren Ortiz Zarragoitia

AURKEZPENA

Ikastaro honen helburu nagusia arkeologiari eta ilustrazio zientifikoarekin duen harremanari buruzko prestakuntza integrala eskaintzea da, batez ere aztarnategien eta material arkeologikoen berreraikuntza grafikoan zentratuta.

Ikastaroan zehar, indusketa arkeologikoen dokumentaziorako eta azterketarako marrazketa-teknikak aztertuko dira, baita kultur ondarea zaintzeko eta zabaltzeko ilustrazioaren garrantzia ere. Parte-hartzaileek berreraikuntza grafikoak sortzen ikasiko dute, marrazkien bidez datu arkeologikoak erregistratzen eta gaur egun arkeologiaren gizarte-eginkizuna ulertzen.

Helburuak:

1. Arkeologiaren oinarritzko ezagutzak eskuratzea: aztarnategiei, indusketari eta ondare historikoa zaharberritzeari buruzko oinarritzko kontzeptuak ikasiko dituzte.
2. Arkeologian erregistro grafikorako teknikak ezagutzea: material arkeologikoak eta berreraikuntza historikoak, dokumentazio hiru dimentsionalerako teknologia berriak eta birsortze birtualerako 3D diseinua barne.
3. Arkeologoaren eta ilustratzaileen arteko harremana ulertzea: bi profil profesionalen arteko lankidetzaren hobetzeko prestakuntza praktikoa.
4. Trebetasun grafikoak garatzea: hormak, egitura arkitektonikoak eta eguneroko bizitzako eszenak ordezkatzeko ikasiko dute, marrazketa-teknika espezializatuen eta diseinurako aplikazio informatikoen bidez digitalizatuz.
5. Marrazketaren garrantzia sustatzea ondare arkeologikoaren sozializazioan eta hedapenean, argitalpenetan, erakusketetan edo aztarnategi arkeologikoetan.



Gaiak eta Landuko Diren Arloak:

1. Irakasgaiaren Sarrera:

- Ilustrazioa Arkeologian
- Indusketa arkeologikoan marrazketa arkeologikoa
- Material arkeologikoen marrazketa
- Berreraikuntza historikoak

2. Arkeologian Ilustrazio Zientifikoa:

- Ilustraziorako teknikak eta tresnak: kalkeak, tolesturak eta marrazketa arkitektonikoa
- Arkeologoen eta ilustratzaileen arteko lankidetzak.
- Ondarearen kontserbazioan eta zaharberritzearen ilustrazioaren eragina

3. Lan Prozesua eta Ilustrazio Historikoen Sorrera:

- Material arkeologikoen identifikazioa: zeramika eta veste artifaktu batzuk
- Dibulgazio publikorako ilustrazio enplangintza

4. Ondarearen Birtualizazioa dokumentaziorako, kontserbaziorako, ikerketarako eta hedapenerako aplikatua.

ZURE BILA GABILTZA

Arkeologia eta berreskuratze grafikoan prestakuntza bilatzen ari zara? Ikastaro honek aukera ematen dizu arkeologia eta berreraikuntza historikoaren adituengandik ikasteko, ondare kulturalaren zaintza eta komunikaziorako funtsezko teknika grafikoak menderatuz.

Arkeologian, ilustrazioan edo berreskurapenean interesatuta dagoen profesionala bazara, ikastaro hau zuretzat da.

Profila hauetakoren batean bazaude, ikastaro hau zuretzat da:

- Ilustratzaile zientifikoak, ilustrazio arkeologikoan eta ondarearen erregistro grafiko eta digitalean espezializatu nahi dutenak.
- Arkeologoak eta arkeologia-ilustratzaileak, ondarearen ikerketa eta dibulgaziorako dokumentazio grafikoaren teknikak sakondu edo eguneratu nahi dituztenak.
- Giza Zientzietan, Artearen Historian edo Historian graduatuak, ilustrazio arkeologikoaren mundua arakatu nahi dutenak.

Onenetatik ikasi eta zure talentua hurrengo mailara eramanez gaudu. Zure zain gaudu!

IRTEERA PROFESIONALAK

Ikastaro honek honako arlo hauetan jarduteko gaitasuna ematen die parte-hartzaileei:

1. Ondare paleontologikoa zaharberritzea eta kontserbatzea:
 - Fosilak eta material paleontologikoak dokumentatzeko ilustrazioa.
 - Museo eta erakusketa interaktiboetarako berreraikuntza grafikoak garatzea.
2. Komunikazio eta dibulgazio zientifikoa:
 - Zientzia-aldizkarietarako eta komunikabideetarako material grafikoak diseinatzea.
 - Ondare paleontologikoari buruzko eduki bisualak sortzea.
3. Ikerketa paleontologikoa:
 - Ikusizko laguntza indusketa paleontologikoetan, aurkitutako fosil eta egituren ilustrazio zehatzekin.
 - Proiektu paleontologikoen txosten grafikoak egitea.

BALDINTZAK

Ikastaro honetan parte hartzeko, ezinbestekoa da Lizentziatura edo Gradu bat izatea.

Programa hau honako hauentzat dago zuzenduta:

- Arkeologia, historia, berreskuratze edo ilustrazio zientifikoaren arloko profesionalak.
- Ilustrazio digitaleko softwarearen ezagutzak dituzten pertsonak, bai matrize-ingurunean (raster) bai bektorialean.
- Ondare historikoarekiko eta haren kontserbazioarekiko interesa dutenak.
- Marrazteko trebetasunak dituzten pertsonak.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2025/03/17tik 2025/03/26ra

EMATEKO TOKIA: Presentziala: Zientzia eta Teknologia Fakultatea

HIZKUNTZA: Gaztelania



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ERREKTOREORDEZTA

VICERRECTORADO DE POSGRADO Y APRENDIZAJE PERMANENTE

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Zientzia eta Teknologia Fakultatea.

HELBIDEA: Barrio Sarriena s/n. 48940 Leioa (Bizkaia)

TELEFONOA: 946 013 548

POSTA ELEKTRONIKOA: ilustracioncientifica.fct@ehu.eus

Twitter: [@IlustraCienti](https://twitter.com/IlustraCienti)

Instagram: [@ehu_ilustracioncientifica](https://www.instagram.com/ehu_ilustracioncientifica)

Página web: www.ehu.eus/ilustracion-cientifica

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.